DURANGO
Kirolak

**DURANGO KIROLAK**en kidea zarenez, gonbitea bidaltzen dizut, datorren **OSTIRALE-An, AZAROAren 6an, 13:30etan, EZ OHIKO ETA PREMIAZKO lehen deialdian,** **Udaletxeko Pleno aretoan,** egingo den bilkuran agertu zaitezen. Behar beste batzarkide agertu ezik, batzarra ordu bete beranduago egingo da (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Araudiaren 14.1 artikulua).

**GAI ZERRENDA**

1. Deialdiaren premiari buruzko baieztapena
2. Bidezkoa balitz, aurreko akta-zirriborroen onartzea. (2020-09-16).
3. Presidentearen zenbait ebazpenei buruzko kontu ematea
4. .Presidentearen kudeaketa txostena.
5. Iritzian hartzerako gaiak.
   a. 2021 urterako Instalazioen irekiera egutegiak
   b. - 2021 urterako zerbitzuen tarifa berriak
   c. - Kirol jarduerak garatzeko zerbitzuen kontratazioa
   d.
6. Eskariak eta galderak.

Se le convoca a Vd., como miembro del Consejo Rector de **DURANGO KIROLAK**, a la reunión **EXTRAORDINARIA Y URGENTE** que se celebrará en la **Sala de Pleno del Ayuntamiento,** el próximo **VIERNES**, día **6** de **NOVIEMBRE,** a las **13:30** horas en primera convocatoria y en segunda, si hubiera lugar, una hora después, al no concurrir mayoría a la hora señalada. (*Art. 14.1 del Reglamento de Organizaciones, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales*).

**ORDEN DEL DÍA**

1. Pronunciamiento sobre la urgencia de la convocatoria
2. .Aprobación, si procede, del borrador de acta anterior. (16-09-2020).
3. Dación de cuentas de varias resoluciones de la Presidenta.
4. Informe de gestión de la Presidenta.
5. Asuntos para la toma en consideración.
   a. Calendario de apertura de las instalaciones para el año 2021
   b. Nuevas tarifas de los servicios. para el año 2021
   c. Contratación del servicios para desarrollo de actividades deportivas
6. Ruegos y preguntas.

Durangon, 2020ko Azaroak 4

**PRESIDENTEA/LA PRESIDENTA**

En Durango, 4 de Noviembre de 2020

**IDAZKARIA/LA SECRETARIA**

DURANGO Kirolak

**KONTSEILU-ERREKTOREAren AKTA / ACTA CONSEJO RECTOR**

**DATA/FECHA**: 2020ko azaroaren 6a / 6 de noviembre de 2020

**TOKIA/LUGAR:** Udaletxeko Pleno aretoa / Salón de Plenos de la Casa Consistorial

**HASIERAKO ORDUA / HORA COMIENZO:** 13:40etan

**PARTE-HARTZAILEAK / ASISTENTES:**

| | |
|---|---|
| PRESIDENTEA/PRESIDENTA | Doña Ane Abanzabalegi Areitio andrea (EH Bildu)) |
| ZINEGOTZIAK/ CONCEJALAS-CONCEJALES | Don Iker Urkiza Quilez jauna (EH Bildu-Durango)<br>Doña Garazi Errasti Silloniz Andrea (EH Bildu)<br>Don Julián Ríos Santiago Jauna (HE-EP-I)<br>Don Jorge Varela Dorrio jauna (HE-EP- I)<br>Doña Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andrea (EAJ-PNV)<br>Don Jon Sergio Atxotegi jauna (EAJ-PNV)<br>Don Mikel Ortega Marañón jauna (EAJ-PNV)<br>Don Fernando Castillo Rodriguez jauna (DES-SVD) |
| IDAZKARIA/ SECRETARIO | Don Iñaki Inza Arregi jauna |
| TEKNIKARIAK/TECNICOS | Doña Teresa Oleaga Larrinaga andrea<br>Don Enrique Pérez Erdozain jauna |

Presidenteak lehen deialdian batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertu dira:

Abierta la sesión por la Presidenta en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del día y que son los siguientes:

1. **Deialdiaren premiari buruzko baieztapena.**

   Bertaratuek ahobatez onartu dute batzar hau egitearen premia.

1. **Aprobación, si procede, de la urgencia de la presente convocatoria.**

   Por unanimidad de los asistentes, se aprueba la urgencia de esta sesión.

2. **Presidentearen zenbait ebazpenei buruzko kontu ematea.**

   Urkiza jaunak galdetu du ea zalantzarik dagoen presidenteak urrian eman eta batzarraren aurretik bidali diren ebazpenen inguruan.

   Bertaratuek ez dute galderarik, eta ebazpen horien jakitun geratu dira.

2. **Dación de cuenta de varias resoluciones de la Presidenta.**

   El sr. Urkiza pregunta si hay dudas sobre las resoluciones que han sido dictadas por la presidencia en el mes de octubre y que han sido remitidas.

   Los asistentes no tienen preguntas al respecto y se dan por enterados de dichas resoluciones.

DURANGO Kirolak

3. **Presidentearen kudeaketa txostena.**

Ez da kudeaketa txostenik aurkeztu.

4. **Iritzian hartzerako gaiak.**

a. **2021. urterako instalazioak irekitzeko egutegia (Lehendakaritzaren eskumena).**

Urkiza jaunak adierazi du egutegia prestatzeko hainbat aukera dabiltzala aztertzen.

Inza jaunak esan du ohiko egutegia hartu dela oinarritzat, instalazio guztiak zabalduta, eta haren gainean irudikatu direla aukerak.

Inza jaunak aukerak azaldu ditu eta kasuistika desberdinak azaldu ditu, proposamen hori langileei helaraziko zaiela adieraziz, iritzia eman eta proposamenak egin ditzaten. (Dokumentua geroago bidali zaie bertaratutakoei eta akta honen 1 ERANSKINEAN jasotzen da)

b. **2021erako zerbitzuen tarifa berriak (proposamena Osoko Bilkurari igortzea).**

Urkiza jaunak adierazi du datorren urterako zerbitzuen tarifei buruzko proposamen bat egin dela (proposamena akta honen 2. ERANSKINEAN dago).

Urkiza jaunak komentatu du proposamena bileran eztabaidatzeko ekarri dela eta gaur akordioren bat lortuz gero, irizpena eman eta osoko bilkurara eroan daitekeela. Ez bada ezer adosten, aztertzen jarraituko dugu.

Perez jaunak jarduera guztietarako proposatutako tarifak azaldu ditu, eta proposatutako egoeretan tarifa horiek erakundearen aurrekontuan izango duten eragina azaldu du.

3. **Informe de gestión de la Presidenta.**

No se presenta ningún informe de gestión.

4. **Asuntos para la toma en consideración.**

a. **Calendario de apertura de las instalaciones para el año 2021 (competencia de la Presidencia).**

El sr. Urkiza indica que hay diferentes posibilidades de calendario en las que se está trabajando.

El sr. Inza dice que se ha partido de un calendario normal con la apertura de todas las instalaciones y se han ido plasmado sobre el papel las diferentes opciones.

Explica el Sr. Inza las posibilidades y expone las diferentes casuísticas indicando que esta propuesta se trasladará a los trabajadores para que den su opinión y realicen sus propuestas. (El documento ha sido remitido posteriormente a los asistentes y se recoge en el ANEXO 1 de esta acta).

b. **Nuevas tarifas de los servicios para el año 2021 (elevación de propuesta al Pleno).**

El sr. Urkiza indica que se presenta una propuesta, que se adjunta como ANEXO 2 a esta acta relativa a las tarifas de los servicios para el próximo año.

Señala el sr. Urkiza que se trata de debatir esta propuesta y si se llega a un acuerdo hoy, puede dictaminarse para trasladarla al pleno. De lo contrario, se seguirá estudiando.

El sr. Pérez explica el contenido de la propuesta de tarifas para todas las actividades y señala el impacto en los presupuestos del organismo de los distintos escenarios propuestos.

DURANGO Kirolak

Horrez gain, Perez jaunak planteatutako aukerekin edukiko den autofinantzazioaz ere berba egin du.

Urkiza jaunak gai horri buruz azaldu du Durango Kirolaken autofinantziazioa oso estua dela, % 38,95 bakarrik, eta udalak egiten duela diru-ekarpen handiena, durangar guztien –erabiltzaile izan zein ez– diruarekin. Hori dela eta, autofinantzazio handiagoa lortzeko hainbat proposamen aztertu dira, horrela, udalaren diru-ekarpena txikiagoa izatea lortzeko.

Nabarmendu du Urkiza jaunak proposamen horiek aztertu eta baloratu beharko direla.

Elkoroiribe andreak proposamen horiek bidaltzeko eskatu du, aukerak behar beste denborarekin aztertu ahal izateko. Adierazi du printzipioz ez dutela proposatutako planteamendua ondo ikusten, egin gura den kontratu berrian murriztu egingo direlako orduak, prezioa eta kostua; horregatik, bere ustez ez da logikoa prezioak igotzea, eta are gutxiago bizi dugun egoeran.

Urkiza jaunak adierazi du kontratuaren murrizketak bizi dugun testuinguruaren barruan ulertu behar direla. Kontua ez da izango zerbitzua murriztea edo kalitatea galtzea, diru publikoa ez xahutzea baino. Dokumentazioa bidaliko da, aztertu eta proposamenak egin ahal izateko.

c. **Kirol jarduerak egiteko zerbitzua kontratatzea (Zuzendaritza Kontseiluaren eskumena).**

Aipatutako kontratazioaren espedientea ekarri da, onartzeko.

Habla también el sr. Pérez sobre la autofinanciación que se conseguiría con las distintas opciones planteadas.

Este tema, explica el sr. Urkiza, viene a raíz de que se ha visto que la autofinanciación de Durango Kirolak es bastante justa, sólo un 38,95 %, siendo el ayuntamiento, con el dinero de todos los durangueses, sean usuarios de las instalaciones deportivas o no, quien hace una aportación mayor. Se trata de un ejercicio en el que se plantean distintas propuestas para conseguir diferentes niveles de autofinanciación logrando así que la aportación del ayuntamiento sea menor.

Reitera el sr. Urkiza que se trata de valorar las propuestas planteadas.

La sra. Elkoroiribe solicita se remitan las propuestas para poder estudiarlas con tiempo. De primeras indica, no ven el planteamiento propuesto pues visto el nuevo contrato que se pretende, con una reducción del servicio en horas, en precio, en coste, no ven lógico una subida de precios y más, con la situación que estamos viviendo.

El sr. Urkiza indica que las reducciones del contrato se deben ver dentro del contexto que estamos viviendo. No se trata de reducir servicios ni de que sean peores sino de que el dinero público no se despilfarre. Se remitirá la documentación para que se estudie y se realicen propuestas.

c. **Contratación del servicio para el desarrollo de actividades deportivas (competencia del Consejo Rector).**

Se presenta la propuesta de aprobación del expediente de contratación referido.

Elkoroiribe andreak esan du EAJ/PNV-tik ez dutela uste planteamentu egokia denik, ordutegi-murrizketa bat dagoelako, prezio jaitsiera dagoelako, etab. Urte asko daramatzagu kirol arloan zerbitzu bat defendatzen, aitzindaria, eredugarria eta erreferentea dena, eta proposamen horrek atzerapausoa dakar.

La sra. Elkoroiribe indica que desde EAJ/PNV no ven que sea el planteamiento acertado pues es un contrato en el que hay una reducción de horas, una reducción del precio, etc.. Se lleva muchísimos años trabajando y defendiendo un servicio en el ámbito del deporte que ha sido pionero, ejemplar y referente y esto supone un paso atrás.

Varela jaunak EAJ/PNVri galdetu dio ea proposamen zehatzik duten kontratu honentzat.

El sr. Varela pregunta si EAJ/PNV tiene alguna propuesta concreta para este contrato.

Elkoroiribe andreak esan du ez dutela proposamen zehatzik aurkeztu, konturatu direlako ez dutela ezertarako balio. Egoera zaila dela ulertuta, euren planteamendua izango litzateke prezioak lehengo horretan mantentzea, ordutegia eta prezioa ez murriztea, eta –uste dute gobernu-taldeko alderdiek beti gura duten kontua dela- hitzarmenak betetzea, eta baldintza duinak eta enpleguaren kalitatea bermatzea. Deigarria egiten zaio, gainera, prezio publikoak igo gura izatea eta enpresarekiko eskakizun-maila handitu nahi izatea.

La sra. Elkoroiribe indica que no han presentado ninguna propuesta concreta pues se han dado cuenta que no sirven para nada. Su planteamiento sería, entendiendo que la situación es difícil, mantener el precio como estaba, no reducir las horas ni el precio de las mismas y cumplir, como cree que siempre abogan los partidos del equipo de gobierno, con los convenios, con las condiciones dignas y con la calidad del empleo. Le llama la atención además que se pretende subir los precios públicos y se aumente el nivel de exigencia con respecto a la empresa.

Castillo jaunak galdera egin du subrogatutako langileen lan-baldintzak aldatzerakoan izango diren aldi baterako eraginei buruzko txosten juridikoaren inguruan.- Oleaga andreak erantzun du txostenean esaten dena dela langile horiei hitzarmen kolektiboa eta enpresa esleipendunari dagozkion lan baldintzak aplikatuko zaizkiela, eta lan kontratu bakoitzean sarturik dauden hobekuntzak ere aplikatuko zaizkela, eta hori enpresa esleipendun berrira pasa daitekeela.

El sr. Castillo pregunta, en relación al informe jurídico remitido respecto a los eventuales efectos de una modificación de las condiciones de trabajo del personal a subrogar.- La sra. Oleaga responde que lo que viene a decir el informe es que a ese personal le será de aplicación el convenio colectivo y las condiciones laborales que procedan en virtud de la empresa adjudicataria y eventualmente de las mejoras que estén incorporadas a cada contrato laboral y pueda ser trasladable a la nueva adjudicataria

Urkiza jaunak Elkoroiribe andreari erantzunez esan du kontratu honetarako egin den planteamendua sektoreak momentu honetan duenarekin bat datorrela, eta, gainera, hobetu egiten duela. Txosten juridikoek diotenez, enpresa esleipenduna ezin daiteke derrigortu

Respondiendo a la sra. Elkoroiribe, el sr. Urkiza indica que el planteamiento realizado para este contrato está de acuerdo y además se mejora, con lo que existe en este momento en el sector. En base a los informes jurídicos, no se puede obligar a la empresa adjudicataria a la

gaur egungo enpresaren hitzarmenera lotzera. Ordutegiaren gutxieneko doitze bat egin da enpleguei eutsi ahal izateko. EAJ/PNVri eskatu dio planteamendu bat egin dezala, besteak beste, orduak eta kontratuaren prezioa mantenduta, eta prezio publikoa handitu barik. Zelan lor daiteke hori?

vinculación al convenio de empresa actual. Se ha realizado un ajuste en horas mínimo para mantener los empleos. Solicita a EAJ/PNV haga un planteamiento manteniendo las horas, el precio del contrato, etc. y que no suponga un aumento del precio público. Como se puede conseguir eso?.

Elkoroiribe andreak esan du EAJ/PNVren ustez ezin direla bat etorri ordutegiak gutxitzea, prezioa gutxitzea, zerbitzuaren kostu osoa murriztea, eta enpresari gehiago exijitzea eta prezioa igo gura izatea. Baldintza horiekin, zerbitzua eman barik geratzea gerta daiteke.

La sra. Elkoroiribe indica que para EAJ/PNV no casa que se reduzcan las horas, se reduzca el precio, se reduzca el coste total del servicio, se exija más a la empresa y además se pretenda un aumento de precio. Nos podemos encontrar con la casuística de que quede desierto el servicio.

Urkiza jaunari argi geratu zaio zein den EAJ/PNVk gaiari buruz daukan iritzia, baina esan du oraindik ez dakiela talde horrek zein proposamen egiten duen.

Al sr. Urkiza le queda claro cuál es el parecer de EAJ/PNV respecto a la propuesta planteada pero indica que todavía no sabe cuál es la propuesta que dicho grupo hace.

Urkiza jaunak oposizioari galdetu dio ea prest egongo liratekeen kontratuaren orduak eta prezioa bere horretan utzi eta prezio publikoak igotzeko.

El sr. Urkiza pregunta a la oposición si estarían dispuestos a mantener las horas y el precio del contrato aplicando una subida de precios público.

Elkoroiribe andreak azaldu du edozein proposamen aztertzeko prest daudela eurek, baina orain bertan egindako proposamena ez zaiela koherentea iruditzen.

La sra. Elkoroiribe indica que estarían dispuestos a analizar cualquier propuesta pero ésta no les parece coherente.

Koherentziari buruz, eta gaur egungo egoera zein den ikusita, Urkiza jaunak esan du proposamena errealitatera egokituta dagoela. Orduen murrizketa gaur egungo egoera zein den ikusi eta gero planteatu da. Bestalde, prezioak igotzea planteatu da erakundearen autofinantziazioa igotzeko helburuarekin. Egoeraren argazki bat da, baina ez da planteamendu itxi bat.

Respecto a la coherencia y, en la tesitura que estamos, indica el sr. Urkiza, la propuesta se ajusta a la realidad. Se plantea la reducción de horas una vez valorado lo que se está viendo. Por otro lado, se plantea el aumento de precios a fin de aumentar la autofinanciación del organismo. Es una foto de la realidad pero no es un planteamiento cerrado.

Elkoroiribe andreak berretsi du ez daudela 2021ean zergak ez prezio publikoak igotzearen alde, eta are gutxiago zerbitzua murriztuko bada. Esan du gobernu taldearen proposamen bat dela,

La sra. Elkoroiribe reitera que no ven una subida de impuestos ni de precios públicos para el 2021 y menos si lo que se pretende es reducir el servicio. Indica

eta proposamen hori egin eta defendatzeko eskubidea dutela, nahiz eta eurek bat ez etorri. Hanka-sartze bat dela uste dute.

Urkiza jaunak esan du gobernu taldearen proposamena dela, baina asmoa eztabaidatzea eta beste proposamen batzuk ezagutzea dela, akordio batera heltzeko. Ulertu du EAJ/PNVren proposamena kontratuaren orduak eta prezioa bere horretan uztea dela prezio publikoak igo barik; proposamen hori ez litzateke errealitatera egokituko eta sostengaezina izango litzateke.

Urkiza Jaunak gehitu du DK- autofinantzaketarako zer tesitura duen baloratzen ari dela.a. Hau errealitatearen eta eman litezkeen beste eszenatoki batzuen argazkia da. Ez da igotzeko planteamendurik ekarri. Hauek dira aukerak, hau da errealitatea. Ikusten badugu, egokitu egiten da, eta bestela, dagoen bezala geratzen da. Ez da planteamendu itxia prezio publikoak igotzeko, bizi dugun krisi-egoera ulertzen baitugu. Aukera guztiak ikusten saiatzen ari gara, eta zein beste eszenatoki eman daitezkeen ere bai'

Ez denez adostasunik lortu, Urkiza jaunak kirol jarduerak garatzeko zerbitzuaren kontratazio-espedientea bozkatzeko deia egin du, eta hauxe izan da bozketaren emaitza:

- Aldeko bozkak: 5, EH Bildu (3) eta HE-EP-I (2).

- Kontrako bozkak: 4, EAJ/PNV (3) eta DES-SVD (1)

- Abstentzioak: bat ere ez.

Ondorioz, kontratazio-espedientea onartu da.

que es una propuesta del equipo de gobierno que está en su derecho de hacerla y defenderla aunque no la compartan. Creen que es un error.

El sr. Urkiza afirma que es la propuesta del equipo de gobierno pero lo que se pretende hacer es debatir y conocer otras propuestas para intentar llegar a un acuerdo. Entendiendo que la propuesta de EAJ/PNV sería mantener las horas y el precio del contrato pero sin subir los precios públicos, como tal, dicha propuesta no se ajustaría a la realidad y sería insostenible.

El señor Urkiza añade que se está valorando qué tesitura de autofinanciación tiene DK. Esta es la foto de la realidad y de otros escenarios que se podrían dar. No se trae un planteamiento de subir. Estas son las opciones, esta es la realidad. Si lo vemos, se ajusta, y si no, se queda como está. No es un planteamiento cerrado para subir sí o sí los precios públicos, pues entendemos la situación de crisis que vivimos. Estamos tratando de ver todas las opciones y qué otros escenarios se podrían dar.

Dado que no se llega a un acuerdo, el sr. Urkiza somete a votación la aprobación del expediente de contratación del servicio para el desarrollo de actividades deportivas, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: 5, correspondientes a los miembros de Eh Bildu (3) y HE-EP-I (2)

- Votos en contra: 4, correspondientes a EAJ/PNV (3) y DES-SVD (1)

- Abstenciones: ninguna

En consecuencia, se aprueba el referido expediente de contratación.

| 5. **Eskariak eta galderak.** | 5. **Ruegos y preguntas.** |
|---|---|
| Ez da egon. | No se realizan |

| | | |
|---|---|---|
| Ane Abanzabalegi Areitio | **Urkiza Quilez, Iker** | **Errasti Silloniz, Garazi** |
| **Ríos Santiago, Julián** | **Varela Dorrio, Jorge** | **Elkoroiribe Zenikaonandia, Mireia** |
| **Sergio Atxotegi, Jon** | **Ortega Marañón, Mikel** | **Castillo Rodríguez, Fernando** |
| **Oleaga Larrinaga, María Teresa** | | |